

5

Euskararen erabilera zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan

Iñaki Iurrebaso

Soziolinguista. EHKNren Batzorde Zientifikoko kidea
iurrebaso@euskaltel.net

Sarrera-data: 2012-10-30 | Onartze-data: 2012-11-30

Laburpena. Aurreko artikuluan (ikusi aldizkari honetan “Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den aztertzeko”) euskararen erabilera zertan den aztertzeko ditugun bi iturri nagusietako informazioa alderatu ahal izateko metodozko proposamena aurkeztu dugu. Honako artikulua honetan, irizpide horiekin sortutako datu zaharberrietuen lehen irakurketa bat egin dugu, gaur egun euskararen erabilera eremu zertan den eta azken 20 urteotako bilakaeraren nondik norakoan sintesi-ikuspegia eskaintzen ahaleginduz. Bertan ikus daitekeenez, egungo egoera zein azken bi hamarkadotako joera asko aldatzen da erabilera-eremuak, lurraldeak eta adin-tarteak aintzat hartuta. • **Hitz-gakoak:** *Euskararen erabilera, Bilakaera, Sintesia, Inkesta Soziolinguistikoa (ISL), Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa (EHKN).*

Abstract. In the previous paper (see “A number of method proposals to study what Basque use is like” in this journal) we put forward a method proposal to be able to compare the information from the two main sources available in order to study what Basque use is like. In this paper, we have made an initial interpretation of the revamped data produced on the basis of these criteria, and have endeavoured to offer a synthesis perspective of the details of the evolution over the last 20 years and what Basque use is like by area. As can be seen, today's situation and the trend over the last two decades changes significantly in terms of spheres of use, areas and age groups. • **Key words:** *Basque use, Evolution, Synthesis, Sociolinguistic Survey (ISL), Street Measurement of Basque Use in the Basque Country (EHKN).*

SARRERA

I

Euskal Herriko luze-zabalean euskararen erabilera zertan den aztertzeke, bi operazio estatistiko nagusi ditugu: Inkesta Soziolinguistikoa batetik (ISL) eta Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa (EHKN) bestetik. Biek ematen digute oso informazio baliagarria erabilerari buruz. Bietan denbora-serie luze samarrak izaten hasi gara (bi hamarkadatarako datuak ditugu dagoeneko). Oinarri paregabea dugu, hortaz, euskararen erabilera zertan den eta antzeman daitezkeen joerak aztertzeke

Irakurketa orokor bat eskaintzeke, ordea, bi iturrietako datuak ez dira zuzenean alderagarriak. Oztopo hori gainditzeko, homogeneizatzeko lan bat egin dugu. Horretarako erabili ditugun prozedura eta metodozko hautuak zehatz azaldu ditugu aurreko artikuluan: “Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den aztertzeke”. Honako artikulua oinarri metodologikoa hor dago, beraz, aurreko artikulua horretan. Ahalegin horren emaitzak (erabilerari buruzko datu birkalkulatuak) eskuragarri daude honako webgunean:

<http://www.soziolinguistika.org/kaleneurketa/datuak2011>

Honako artikulua honetan, datu “berritu” horiek hartu, eta sintesiz ikuspegi bat eskaintzen ahaleginduko gara, bi iturriak batera aztertu ahal izateak dakarren aberastasuna profitatu nahirik baina azken hitza esateko batere asmorik gabe.

EUSKARAREN ERABILERA EUSKAL HERRIAN, 2011

I


Birkalkulatu ditugun datu nagusiak honako grafiko honetan aurkeztuko ditugu. Bertan ikus daitezkeenez:

Euskararen erabilera aldatu egiten da, dezente gainera, eremutik eremura. Hedabideen kontsumoak markatzen du minimoa (%6,6koa bakarrik litzateke eremu horretan euskarak duen tokia) eta lankideekin izaten diren elkarriketetan izango luke maximoa (%17,6ko erabilera aitortua). Ez dugu irakaskuntzan euskararen erabilerak duen tokiari buruzko datu zehatzik, baina pentsa daiteke goiko muga hori gainditu egingo lukeela euskararen erabilerak irakaskuntzan duen tokiak. Aitzitik, batez besteko erabileraren azpitik azaltzen zaigu etxeko erabilera (%13,5eko erabilera aitortua). Orokorrean, badirudi euskara gehixeago erabiltzen dela jada eremu formaletan, informaletan baino. Eta bereziki deigarria egiten da hedabideen kontsumoan euskarak duen toki txikia.

Euskal Herriko luze-zabalean euskararen erabilera zertan den aztertzeke, bi operazio estatistiko nagusi ditugu: Inkesta Soziolinguistikoa batetik (ISL) eta Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa (EHKN) bestetik.

Herritarren bizitza garatzen den eremu nagusiei buruzko informazioa esku artean dugularik, esan al daiteke zenbatekoa den euskararen erabilera globala, eremu guztiak kontuan hartuta? Zorrotz ezin da holarik egin, ez behintzat hainbat haztatze-ariketa egin gabe (oraingoz ez gaude egiteko moduan). Hala ere, datuak ikusita, eta “Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den aztertzeko” artikuluan erabilera behatuaren eta aitortuaren arteko aldeaz esan duguna kontuan izanda, pentsa daiteke kale-erabilera haztatuak hartzen duen %11,5eko balio horretatik ez oso urruti ibiliko dela euskararen erabilera orokorra Euskal Herrian 2011. urtean.

1. Grafikoa. Euskararen erabilera. Euskal Herria, 2011 Jatorrizkoak %-tan



Iturria: ISL. EHKN, CIES


ERABILERAREN BILAKAERA EUSKAL HERRIAN, 1991-2011

Euskal Herria bere osoan hartuta, eta euskararen erabilera eremu eremu nola aldatu den begiratu, ez da joera bakarra antzematen 1991-2011 tarterako.


Bilakaera-datuak erakusten duten aldaketa-joera esanguratsua euskararen erabilera eremu formalean egin duen aurrerakada dugu. Horrela, ISLko datuen arabera, igo egin da lankideekiko elkarrizketetan euskarak duen tokia: %11,2koa zen 1991n eta %17,6koa 2011n (+%58,1eko hazkunde erlatiboa). Eta igo egin da, halaber, bestelako eremu formale-

tan ere: udaletxean, banketxean eta osasun zerbitzuetan, adibidez, %9,9tik %15,6ra igo da (+%56,6ko hazkunde erlatiboa). Eredu formaletan jazotako igoera indartsu hori osatu eta birbaieztatu egiten da irakaskuntzari erreparatuta ere. Datu ugari adierazten dute bilakaera hori, nahiz eta, tamalez, ez dugun irakaskuntzan egiten den erabilerari buruzko sintesi-datu alderagarriak. Edozein kasutan, datuen argitara, ukaezina dirudi eremu formal nagusietan euskararen erabilerak nabarmen egin duela aurrera azken bi hamarkadotan.

2. Grafikoa. Erabileraren bilakaera. Euskal Herria, 1991-2011(%)



3. Grafikoa. Erabileraren bilakaera erlatiboa Euskal Herrian (hazkundera %-tan)



***Euskara
sukaldeko
hizkuntza
izatetik, plazako,
gune formaletako
izatera pasatzen
ariko litzateke.***

Bestalde, datuek diotenez, euskararen erabilera, apalago bada ere, igo egin da lagun artean ere: %12,8koa zen 1991. urtean eta %16,2koa 2011n (+%26,6ko hazkunde erlatiboa). Eta berdin gertatu da kalean ere¹ 1989. urtean %10,6koa zen eta 2011n %12,4koa (+%16,8ko hazkunde erlatiboa).

Azkenik, bilakaera positiborik izan ez duten bi eremuak ditugu. ISLko datuen arabera, euskararen erabilera ez da igo Euskal Herriko etxeetan: %13,9koa zen 1991. urtean eta %13,5koa 20 urte geroago (-%3,3ko hazkunde erlatiboa). Hedabideen kontsumoari dagokionez, ez dugu errealitate hori sakon aztertzeke betarik izan, baina ditugun datu partzialak jaramon eginda, pentsa daiteke euskararen erabilera ziurrenik jaitsi egin dela hedabideen kontsumoa bere osoan hartuta.


Irakurketa orokor bat eginda, esan daiteke iraultza soziolinguistiko bat gertatu dela azken 20 urteotan euskararen eremukako erabileran. ISLko emaitzak kontuan hartuz gero, aztertutako eremuen artean, “etxean” egiten zen gehien euskaraz 1991. urtean: lagun artean baino gehiago, lantokian baino gehiago eta gainerako eremu formaletan baino gehiago ere bai. Hogei urte geroago, aldiz, horixe da euskara gutxien entzuten den eremua, beste eremuetan euskarak gora egin duelako eta etxean ez delako aldaketa handirik izan. Ondorioz, nolabait adieraztearren, euskara sukaldeko hizkuntza izatetik, plazako, gune formaletako izatera pasatzen ariko litzateke. Ahulago zen eremu horietan igo da gehien erabilera, egoera iraultzeraino. Orain gehiago da euskara “plazakoa”, “etxekoa” baino. Nolabait esatearren, orain ahulgune nagusiak bi lirateke aztertutako eremuen artean: “etxea” (lehen indartsuen zen eremua, hain justu) eta hedabideak.

Bilakaerari buruzko irakurketa hau bukatzeko, esan behar da datuek erakusten dituzten bilakaera-joera horiek ez direla linealak izan aztertutako epealdi osoan, eta orokorrean, joera positiboagoetatik joera ez hain positiboetara (eta batzuetan baita negatiboetara ere) pasatu gara. Hots, labur esanda, gehiago aurreratzen zela duela 20 urte, azken urteotan baino. Azterketa sakonagoen zain, lehen begiratu batean bederen, askotan aipatu izan diren “moteltzearen” edo gelditzearen ideiak baieztatutako lituzkete aztertu ditugun datuek.


LURRALDEEN ARABERAKO IKUSPEGIA

2011ko datuei erreparatuaz, argi dago Euskal Herriko hiru eremu administratibo nagusiak kontuan hartuta (Trebiñu eta Villaverde Turtzioz ez ditugu kontuan hartu gure azterketan), EAEn erabiltzen dela euskara gehien (Gipuzkoaren eraginez, batik bat). Ondoren datoz Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa eta, azkenik, Nafarroa Garaia.


4. Grafikoa. Erabilera, administrazio-eremuka. Euskal Herria, 2011



5. Grafikoa. Kale-erabilera herrialdeka (herritar guztiak —haurrak barne—, adinaren arabera haztatua). Euskal Herria, 1989-2011




6. Grafikoa. Erabileraren bilakaera erlatiboa, administrazio-eremuka (hazkunde %-tan). Euskal Herria, 1981-2011




Azken 20 urteotako bilakaerari dagokionez, **Lapurdi, Nafarroa Beherean eta Zuberoan** erabilerak atzera egin du nabarmen, aztertutako eremu guztietan egin ere. Lurralde horietan gertatzen ari den bilakaera adinaren arabera aztertuta, bada esperantzara gonbidatzen gaituen argi izpirik. Hala ere, oraindik ere argi ageri da galerarako joera orokorra, eta 20 urte lehenago baino %40 gutxiago egiten da euskaraz Iparraldeko etxeetan gaur egun. Aztertutako gainerako eremuetan (lanean, lagun artean, kalean eta hainbat eremu formaletan) galerak apalagoak izanda ere, ez dira txikiak, eta %25aren inguruan dabilta.

7. Grafikoa. Erabileraren bilakaera. Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa, 1991-2011 (%)



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa orokorrean hartuta, bilakaera positiboa da 1991-2011 tartean. Epealdi osoa hartuta, asko igo da euskararen erabilera lankideen artean (+%77,4ko hazkundera) eta beste hainbat eremu formaletan (+%67,0). Igo egin da, halaber, lagunen artean (+%38,6) eta kaleko elkarriketetan (+%20,0). Igoerarik apalena etxean ikusten dugu, +%5,3ko igoera 20 urtetan. Orokorrean, bada, erabilera-eremuen artean alde handiak ditugu, baina gorako joera nagusi da EAEn. Bi ñabardura garrantzitsu egin behar zaizkio, ordea, goranzko joera orokor horri, hazkunde erritmoari buruzkoa bata eta herrialdeen arteko aldeei buruzkoa bestea.

8. Grafikoa. Euskararen erabilerearen bilakaera. Euskal Autonomi Erkidegoan, 1991-2011 (%)




Hazkunde-erritmoa, izan ere, moteltzen joan da EAEn, eta gutxiago aurreratzen da azkenaldian, duela 20 urte baino. Eremu informalar buruzko azken bost urteetako datuak, zehazki, ez dira lasai egotekoak. Datu horien arabera, eremu horietan, onenean ere, geldituta legoke euskararen berreskuratze-prozesua, eta beherako joera apala hasita txarrean.

Bigarren ñabardura herrialdekako joerei buruzkoa da. Izan ere, Gipuzkoak erakusten du aldaketa-joera positiboa, eta dezente apalagoa beste bi herrialdeek. Esan daiteke, gainera, EAEn bilakaera positiboaren zati handi bat Gipuzkoako bilakaerari zor zaiola. Are gehiago, euskararen kale-erabilerearen bilakaerari erreparatzen badiogu, badirudi zenbaki gorrietan sartu garelara 2006-2011 tartean Bizkaian eta Araban; gutxixeago egiten baita gaur euskaraz bi herrialde horietako kaleetan, bost urte lehenago baino.

**Ez eremu
administratiboak
eta ezta
herrialdeak ere
ez dira
homogeneoak
bere baitan; hots,
alde handiak
daudela
herrialdeen
barruan bertan
ere eskualdetik
eskualdera eta
udalerritik
udalerrira.**

Nafarroa Garaia dagokionez, aurrera egin du euskararen erabile-
rak eremu formaletan, eta atzera etxean zein kalean. EAEn baino zerbait
apalagoak dira igoerak, eta handiagoak jaitsierak, Ipar Euskal Herriko
galeren mailara inondik inora iritsi gabe. Horrela, landutako datuen
arabera betiere, 20 urte lehenago baino euskara gehiago egiten da Na-
farroa Garaian lankideen artean (+%33,3) eta bestelako eremu formaletan
(+%52,7). Gutxiago egiten da, ordea, kalean (-%13,8) eta etxeetan (-%15,6).
Datu horiek baloratzerakoan, kontuan hartu beharko da, besteak beste,
azken 20 urteotan herrialde honetan gertatu diren aldaketa demografiko
garrantzitsuak, etorkin erdaldunen etorrera Euskal Herriko gainerako
zonaldeetan baino dezente handiagoa izan baita, eta horrek errotik bald-
intzatzen baitu errealitate soziolinguistikoa eta hizkuntzen erabilera.

9. Grafikoa. Euskararen erabilaren bilakaera. Nafarroa Garaia, 1991-2011 (%)



Ez dugu lurraldeen araberako bilakaerari buruzko azterketatxo hau
amaitu nahi ideia garrantzitsu bat mahaigaineratu gabe: ez eremu ad-
ministratiboak eta ezta herrialdeak ere ez dira homogeneoak bere baitan;
hots, alde handiak daudela herrialdeen barruan bertan ere eskualdetik
eskualdera eta udalerritik udalerrira. Adibidez, susmoa dugu azken
bost urteotan Nafarroako, Arabako eta Bizkaiko hainbat eremutan eus-
kararen erabilera gora egingo zuela, Gipuzkoan bezala; eta alderantziz,
Gipuzkoako hainbat tokitan behera egingo zuela. Hori guztia aztertzea
funtsezko erronka da egoeraren eta aldaketa-joreen diagnostiko egoki


bat egiteko. Artikulu honen helburuetatik at dago guztiz, ordea, azterketa hori egitea, eta horretan utzi beharko dugu.

ADINAREN ARABERAKO IKUSPEGIA

Erraza da euskararen erabilera adinaren arabera gaur egun zertan den esaldi bakarrean laburtzen: zenbat eta gazteago, orduan eta euskararen erabilera handiagoa; zenbat eta zaharrago, orduan eta urriagoa. Aldeak, gainera, handiak dira gazteenen eta zaharrenen artean. Joera orokorra ederki laburtzen duen bi datu emango ditugu, kale-erabilerari buruzkoak: haurren erabilerak (%19,2 euskaraz) bikoiztu egiten du 65 urtetik gorako herritarrena (%9,7). Esan beharrik ez dago adinaren arabera hurrenkera hori dela komenigarriena berreskuratu nahi den hizkuntza baten ikuspuntutik. Horixe Euskal Herria bere osoan hartuta lortutako argazkia, nahiz eta hainbat eremutan (Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bereziki) egoera bestelakoa izan.

Zenbat eta gazteago, orduan eta euskararen erabilera handiagoa; zenbat eta zaharrago, orduan eta urriagoa.

10. Grafikoa. Euskararen erabilera adinaren arabera. Euskal Herria, 2011




***Euskal Herria
bere osoan
hartuta, azken
hamarkadotan
gertatzen ari den
bigarren iraultza
soziolinguistikoa
ren aurrean
gaude:
aztertutako
eremu guztietan
euskara zaharren
hizkuntza
izatetik gazteena
izatera pasatzen
ari baita.***

Azken 20 urteotako datuak aztertuta, joera orokorra ere nahiko argia da: zaharrek gerroz eta euskara gutxiago erabiltzen dute ia eremu guztietan, bereziki gune informaletan (etxean, lagun artean, kalean...). Horren oinarrian, lehenik eta behin arrazoi demografikoak daude (baina ez horiek bakarrik, aurrerago ikusiko dugun bezala), gaur egungo zaharrak “erdaldunagoak” baitira, batez beste, 20 urte lehenagokoak baino. Zaharrenek ez bezala, belaunaldi berriek goranzko joera erakusten dute aztertutako eremu gehienetan, eta aldaketa-joera bereziki positiboa da belaunaldi gazteenetan.

Aurrera jarraitu aurretik, gogorarazi nahi dugu Euskal Herri osoko datuekin ari garela orain, eta joera orokorra hori izanda ere, fenomeno hau ez dela toki guztietan gertatzen (Ipar Euskal Herrikoa dugu salbuespen esanguratsuena). Guztiarekin, eta Euskal Herria bere osoan hartuta, azken hamarkadotan gertatzen ari den bigarren iraultza soziolinguistikoa aurrean gaude: aztertutako eremu guztietan euskara zaharren hizkuntza izatetik gazteena izatera pasatzen ari baita. Iraultza horren neurriaz jabetzeko, hona hemen gazteen erabileraren bilakaeraz hainbat datu: 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean euskararen erabilerak gora egin du udaletxean, banketxean eta osasun zerbitzuetan, 1991ko %8,9tik, 2011ko %21,8ra (+%145,9ko hazkunde erlatiboa), lagunekiko elkarrizketetan (%10,5etik %24,1era; +%128,6ko hazkundea), lankideekin (%11,5etik %24,8ra; +%115,9ko hazkundea), kaleko erabileran (%8,5etik %13,4ra; +%44,8ko hazkundea) eta etxean (%11,5etik %13,5era; +%16,9)². Igo egin da, hortaz, gazteen erabilera eremu guztietan, eremu formaletan bereziki, baina baita, apalago bada ere, aztertutako gainerakoetan ere. Zalantzarik ez dago irakaskuntzan ere indartsu egingo zuela aurrera euskararen erabilerak azken hogeitau urteotan, eta inkognita nagusia, akaso, hedabideen kontsumoan gazteek zer-nolako bilakaera izan duten jakitea dugu (oraingoz ez dugu daturik horretaz aritzeko).


11. Grafikoa. Gazteen erabileraren bilakaera. Euskal Herria, 1991-2011 (%)



Adinkako datuak aztertuta, oro har, argi antzematen dira belaunaldi berrien artean irakaskuntzan euskalduntzearen alde egindako lanaren ondorioak. Egia da belaunaldi berrien erabilera-tasak oso urruti gelditzen direla euskaraz hitz egiteko gai direnen ehunekotik. Baina ukaezina da, halaber, aldaketa positibo handia gertatu dela gazteen erabileran azken bi hamarkadetan.


Bilakaera orokorraz hitz egiterakoan esaten genuen bezala, ordea, belaunaldi gazteen erabileran izandako bilakaera positiboaren kasuan ere, moteltzeaz hitz egin beharrean gaude, eta azken bost-hamar urteotan hazkundea gelditu egin dela ere esan daiteke hainbat eremutan. Horrela, eremu informaletan, 2011ko datuek ez dituzte bost urte lehenagokoak hobetu (eta haurren kale-erabilerari buruzko datuekin ere horixe bera gertatzen da). Ikusi egin beharko da etorkizuneko ikerketek joera hori baieztatzen duten edo ez.

12. Grafikoa. Kale-erabilera adinaren arabera. Euskal Herria, 1989-2011




Iturria: EHKN

13. Grafikoa. Erabilera aitortua HAINBAT EREMU FORMALETAN (udaletxean, banketxean, osasun zerbitzuetan) adinaren arabera. Euskal Herria, 1989-2011 (%)




Iturria: ISL

14. Grafikoa. Erabilera aitortua LANKIDEEKIN, adinaren arabera. Euskal Herria, 1989-2011 (%)




Iturria: ISL

15. Grafikoa. Erabilera aitortua LAGUNEKIN, adinaren arabera. Euskal Herria, 1989-2011 (%)




Iturria: ISL

16. Grafikoa. Erabilera aitortua ETXEAN, adinaren arabera. Euskal Herria, 1989-2011 (%)



Iturria: ISL

17. Grafikoa. Erabileraren bilakaera erlatiboa, adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2011 (hazkundera, %-tan)



KOHORTEKAKO AZTERKETA; BIZITZAREN ZIKLOA ETA EUSKARAREN ERABILERA

I

Dagoeneko datu-serie politak izaten hasi gara adinkako datuen bestelako irakurketa bat ere egiten hasteko. Horrela, adibidez, gure denbora-seriearen hasieran gazteak ziren herritarrak har ditzakegu eta, urtez urte, zahartu ahala euren portaera nola aldatu den aztertu ahal izango dugu datuetan oinarrituta. Datuei ikuspegi horretatik begiratuta, eta azaleko begiratu bat emanda, badirudi, eta oraingoz hipotesi gisa aipatuko dugu, azken hamarkadotan hala nolako “bizitza-zikloa” errotu dela gure artean. Bizitza zikloaz ari garenean, zera adierazi nahi dugu: bizitzaren aroei lotuta, jendartearen, oro har, ohitura-aldaketak gertatzen direla.

Labur dezagun, oso eskematikoki, eta hipotesi gisa, oraingoz zertan gauzatuko litzatekeen “euskararen bizitza-ziklo” hori:

— Belaunaldi berriak (haurrak) dira euskaldunenak (bai ezagutzan eta baita erabilera aldetik ere). Hori, euskaldunen eta erdaldun euskaltzaleek hurrengo belaunaldietara hizkuntza transmititzeko nahiaren eta erabakiaren ondorio argia da. Ondorengoei euskara transmititzea garrantzitsua da Euskal Herriko herritar asko eta askorentzat, eta guraso askok horren aldeko jokoera eraginkorra dute. Horrek guztiak ondorio argia du haurren ezagutza- eta erabilera-tasetan, zeinak dagoeneko gainerako adin-talde guztien gainetik azaltzen baitzaizkigu.

— Nerabegarora iristearekin batera, ordea, hizkuntza-ohiturak erdaldundu egiten dituzte haur izandako askok, eta erdarara jotzeko joera areagotu egiten da. Euskararen erabilerak atzera egiten du nabarmen. Fenomeno hori, egia esan, ez da harritzekoa, nerabearen bulkada heldu izatea baita, eta horretarako “helduen eredu” imitatzen dute, eta helduen mundua nagusiki erdalduna da. Eta are gehiago kontuan hartzen badugu haur euskaldun askoren gaitasuna mugatua dela, adierazgarritasun-baliabide ahulak dituztela, eta gazte-hizkera propiorik ez daukatela.

— Badirudi, ordea, nerabegaroko beherakada nabarmen horren atzetik, urteak aurrera egin ahala, euskararen erabilera berreskuratu egiten dutela poliki-poliki hainbat gaztek. Euskara gehiago erabiltzeko joera horri eutsi egingo diote hurrengo urteetan, eta hainbat kasutan areagotu ere egingo da joera hori gazte-helduen aroan, seme-alabak jaiotzearekin eta haztearekin batera.

— Helduaroan aurrera egin ahala, ordea (haurrak handitzearekin lotuta agian, eta “hizkuntza transmititzearen” ardura ustez beteta),

Azaleko begiratu bat emanda, badirudi, eta oraingoz hipotesi gisa aipatuko dugu, azken hamarkadotan hala nolako “bizitza-zikloa” errotu dela gure artean.

**Bizitza-zikloari
lotutako lau
mugimendu
garrantzitsu
izango genituzke
joera nagusi
moduan.**

badirudi berriro ere erdarara jotzeko ohitura indarra hartzen hasten dela. Horrela, 50-60 urteren bueltan edo, berriro ere atzera egingo luke euskararen erabilerak, eta joera hori indartu egingo litzateke zahartzearekin batera.

Horrela, bada, bizitza-zikloari lotutako lau mugimendu garrantzitsu izango genituzke joera nagusi moduan:

— Lehen mugimendu “euskaltzalea”. Belaunaldi artekoa, haurren erabilera-tasa handiagoetan gauzatzen dena.

— Lehen mugimendu “erdaltzalea”. Nerabezaroarekin eta lehen gaztaroarekin lotua (12-18 urte bitartean).

— Bigarren mugimendu “euskaltzalea”. Gazteak nerabezaroa utzi eta helduekin lotua (18-50 urte bitartean edo).

— Bigarren mugimendu “erdaltzalea”. Helduak gehiago helduekin eta zahartzearekin batera (50 urtetik aurrera edo).

Horixe, datuen irakurketa azkar batean oinarrituz, planteatzen dugun lanerako hipotesia. Azterketa sakonagoek baieztatu edo ezeztatu beharko dituzte hipotesi horiek.

EUSKARAREN ALDE EGINDAKO LANAK BALIO IZAN DU

Horrelako zenbaki-festaren ondoan, askotan galdetu izan diogu geure buruari: bai, datu asko, baina zer, orokorrean gora edo behera egin du euskararen erabilerak Euskal Herrian? Azken batean, ondo goaz edo oker gabilta? Gure ustez, eskura ditugun datuek ez digute ematen osotasunezko erantzun argirik, lineal eta erabatekorik. Galdera horri eman beharreko erantzuna ezberdina litzateke lurraldea, erabilera-eremua eta garai jakina kontuan hartuta, eta aurrerapauso nabarmenak eman diren bezala, badaude, era berean, kezkatzeko moduko datu eta joerak ere. Artikulu honetan aipatu ditugu horietako batzuk. Badakigu datu ilun horiek frustrazioa eragin diezaioketela hainbati. Zer esan horren aurrean?

Lehenik eta behin, gure hizkuntzarekin gertatzen dena baloratzerakoan, ezin dugula ahaztu testuinguru orokorra. Mundializazioaren, uniformizazio kulturalaren eta estatu-hizkuntza indartsuenen hegemoniaren eskutik, hizkuntzak desagertzen ari dira egunez egun munduan. Ildo horretan, eta gureekin alderagarriak diren datuak ez ditugun arren,

ez dago zalantzarik azken 20 urteotan euskarak izan duen bilakaera munduko gainerako hizkuntza gutxituek izandakoarekin alderatuko bagenu, gureak pozik egoteko moduko datuak liratekeela, bere argi-ilun guztiekin. Horrela, bada, munduko testuinguruan, ez dira txarrak izango artikulu honetan aurkeztutako datuak. Hau esanda ez dugu autokonplazientziarako atea ireki edo kontsolamendu merkea bilatu nahi. Testuinguratze horrek balio beharko liguke, ordea, egindako ahaleginen eta lanen fruituak hobeto baloratzeko, euskarak munduko gainerako hizkuntza gutxiti gehienen bilakaera-joera baino hobea badu, alde ugariatik egindako lanaren eta ahaleginaren ondorio baita.

Esaten ari garen hau argi uzten du, izan ere, landutako datuen lehen irakurketa azaleko batek: euskararen alde administrazioek, herri mugimenduek eta orokorren euskaltzale guztiek egindako lanak balio izan duela. Ez dugu astirik hartu datuak berariaz ikuspegi horretatik lantzeko, eta “egindako lanaren” eta “lortutako emaitzen” arteko harremana sistematikoki aztertzeko. Beste baterako utzi beharko dugu langintza hori. Datuen azaleko azterketa batek, ordea, argi iradokitzen du erabilera-eremu, lurralde, adin-talde batzuetan eta besteetan izan den bilakaera (positiboagoa edo negatiboagoa) ezin dela ulertu egindako ahalegina (handiagoa edo txikiagoa) kontuan hartu gabe. Horrela, beraz, lan egitea merezi duela berretsiko lukete datuek, eta bide horretan guztien ahaleginak direla beharrezko. ●

OHARRAK

1. EHKN, erabilera haztatua, herritar guztiak kontuan hartuta (haurrak barne).
2. Gazteen erabilerearen bilakaeraren kasuan, datuak ez datoz guztiz bat: EHKNren arabera, igo egin da euskararen erabilera (+%44,8), baina ez, inolaz ere, ISLk lagun arteko elkarriketetan ematen duen igoeraren neurrian: +%128,6koa). Azpimarragarria da honako hau salbuespena dela eta orokorrean harrigarriro bat datozela ISLren eta EHKNren emaitzak. Kasu honetan dagoen desorekaren arrazoiei buruz geure buruari galdetuta, izan daiteke ustez “euskaraz” ari diren gazte asko, alternantzia dela medio, euskara eta erdara tartekatuz eta nahasiz aritzen direla praktikan. Eta joera hori, hizkuntzak tartekatzearena, geroz eta errotuagoa dagoela gazteen artean, ziurrenik beraiek horretaz guztiz kontziente ez izan arren. Baliteke horrek azaltzea haien erantzunetan oinarritutako kopuruen (erabilera aitortua, ISL) eta erabilera behatuaren (EHKN) arteko alde hori, ohikoa baino handiagoa.

Ez dago zalantzarik azken 20 urteotan euskarak izan duen bilakaera munduko gainerako hizkuntza gutxituek izandakoarekin alderatuko bagenu, gureak pozik egoteko moduko datuak liratekeela, bere argi-ilun guztiekin.